

Edertasuna



ULA IRURETAGOIENA

Zein da hiriko eraikinik ederrena? Hiri bat bisitatzeko gidaliburuetan edertasunaren ranking-a egitea etengabe burutzen den ariketa da, eta norbaitek erabakitzen du, edertasunaren kontzeptu homogeneizatu eta adostu bat existitzen denaren egiaren gainean. Badi-ra noizbehinka egunkaritako berriak, non kaleko inkesta batean oinarriturik, hiriko txokorik ederrena zein den seinalatzen den, askoren edertasun ideiarekin bat etortzeagatik, kanon estetiko bat sortuz. Arkitekturaren edertasunaren erabilera honetan eraikuntza kultural bat gertatzen da, pertsonekin egiten den bezalaxe, edertzat zer jo behar den adosteko bidea.

Baina pertsonen edertasunarekin gertatzen ez den bezala, arkitekturaren edertasuna edadearekin erlazionatzen da; gaurko eraikin estilotik urruntzen den eraikitze eta konposatzeko modua hobesten dugu. Eraikinen gain egiten dugun epaiketa estetikoan, ondarearen irudi estetikoaren erreferente bihurtzen dugu.

Interesgarria suertatzen da gure ondare estetikatik asko aldentzen den tes-tuinguru eraiki batean edertasunaz gal-detzea. Gure erreferente estetikoarekin alderaketak egiteko aukerak desagertzen direnean, demagun Osaka bezalako hiri *kitsch* batean, zailtasun handiak ditugu itsusi edo ederraren neurgailuan egoteko. Arraro edo berezi iritziak nagusitzen dira. Bestelako kanon estetikoetan murgiltzeak kultura estetikoaren zabal-tzen eta aberasten duela esango nuke.

Arkitekto gisa askotan galdetu didate eraikinen edertasunagatik, arkitektura garaikidearen itsutasunaren jakin-minez seguruen. Edertasun hainbat adar-korapilo daudela erantzun ohi dut; eraikinen soluzioan egin diren kei-nuak eta hautuen abileziek distira piztu dezakete, eraikina burutzerakoan mi-moa azaleratzen duten xehetasunak, edo ingurune elementuak kontuan hartu izanak sentsibilitate bat transmititzen du. Makro eta mikroko seinale hauen emaitzak erakartze sentsazioa esna de-zake, eta horren inguruan dantzan dabi-lenari, edertasuna esango nioke. ●



Zein udalekutara doaz zure seme-alabak?

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Aisialdi antolatuari aitortzen badiogu garrantzitsua dela bai haurren garapen integralerako, bai kontziliazio familiarerako, zergatik ez da bermatzen haur guztiek aukera izatea udaleku irekietan parte hartzeko (etxeko ekonomia edozein dela)? Zergatik da hain mugatua udaleku publikoen eskaintza, askok pribatura jo behar izateraino? Zein balore sustatzen dute zure seme-alaben udalekuek? Zein baldintzatan egiten da lan bertan? Aisialdiari lotutako gal-dera ugari –eta heldu beharreko erronka dezente–, udara betean ere..

Helburu akademikoaren aldean, hezkuntza formalak bigarren plano batean utzi ohi dituenak protagonista dira udalekuek: alde ludikoa, harremanak, emozioak, gorputza... eta horregatik dira hain aberasgarriak. Baina diskurtsiboki ematen diegun balioa praktikara eraman nahi badugu, ez al lukete ume guztiek aukera eta eskubidea izan behar udaleku irekietan parte hartzeko, etxe bakoitzeko ekonomia kontuan izanda ordainduz (edo doan, egoeraren arabera)? Bide horretan, haur guztiak hartu ahal izateko ez al litzateke eskaintza publikoa handitu behar, edo bestela ez al litzateke eskaintza pribatuari irizpide batzuk markatu behar, inor kanpoan ez uzteko helburuz (ezta arrazoi ekonomikoengatik ere)?

Onartu dezagun, kontzilioa izan ohi da udalekuek izen emateko abiapuntua, eta zilegi da erabat, gurasoen lanaldiak haurren eskolaldiarekin bat egiteko moduak errazten ez diren bitartean –beste artikulu baterako ematen duen aldarrikapena–. Kasu honetan ere, baliabide ekonomiko urriak dituzten familiak dira kaltetuak, lan baldintza prekarioak, kontziliatzeko zailtasunak eta udalekuak ordaintzeko ezintasuna eskutik joan ohi direlako.

Baina itzul gaitezen aisialdiak duen balio hezitzaile handira. Zenbat eta nolako txangoak egingo dituzten jakitetik harago –gora txangoak eta abentura, jakina–, erreparatzen al diogu gure seme-alaben udalekuek eskaintzen dutenari? Erreparatzen al diogu udaleku horietan zein garrantzi duen haurren parte-hartzeak, euskarak eta aniztasunak, nola kudeatzen eta lantzen dituzten harremanak, sentimenduak eta gatazkak, zein leku duten hezkidetzak, ingurumenak, elkar zaintzak, autonomiak, auzolanak...? Duten potentzialtasun guztia aintzat hartuz begiratzen al diegu udalekuei?

Potentzialtasuna egia bihurtzeko, beharrezkoak dira baliabideak eta materia-la, ongi formatutako hezitzaileak, lantaldean gogoetatzeko, eztabaidatzeko eta jarduerak planifikatzeko denbora. Beste era batera esanda, beharrezkoak dira inbertsioa eta apustu egitea, aisialdi hezitzaile baten alde. Duela gutxi Donostiako hezitzaile batek salatu du udalekuek bota dutela, eskatu duelako hezkuntza formalaren pareko ratioak betetzea –hezitzaile bakoitzeko haur kopuru mugatu bat– eta ordu estrak kobratzea. Administrazioak eta herritarrek badugu bidea aurretik, benetan sinetsita bagaude aisialdia –adin guztietan– ondo zaindu eta elikatu beharreko altxorra dela. ●